



Basaburuko Udala
CIF P 3104900 J
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

2018KO URRIAREN 30EAN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO EZ OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), udaletxeko bilkura aretoan, 2018ko Urriaren 30ean, goizeko 8:30etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ez ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Esther Lakasta Perez Ilzarbe alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Aitor Arangoa,. Xabier Azpiroz eta Bakartxo Ripalda.

BERTARATU EZ DIRENAK: M^a Mar Ansorena.

8:30etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDA

1.- Aizarotzko 5 eta 29. lursailei erabilera berria finkatzeko egiturazko udal planaren aldaketa. Behin behineko onespena.

Alkateak azaltzen du planaren aldaketa hau aurreko legealdiak hasiera eman ziola, bertan aipatutako lursailei erabilera berria eman nahi zaie, lursail publiko izaera ibaiaren gunearekin lotuta. Horrela izanik ibaiaren interpretazio gunea sortzeko aukera ematen du planaren aldaketa honek.

Udalak 2015eko urtarrilaren 29an behin behinekoz onartu zuen eta Nafar Gobernura bidali behin betiko onespena eman ahal izateko 2002/35 Lurralde Antolamendu Foru Legearen 79. artikularen arabera.

Nafar Gobernuak tramitazio hori egiteko txostenak eskatu zituen horietako bat Ebroko Konfederaziora, txosten hori 2018ko apirilaren 13an iritsi zen. Horren ondoren Nafar Gobernuak eskaera bidali zuen, bere garain behin behineko onespena emandako testuan aldaketa batzuk sartzeko. Hau guztia ikusita eta aipatutako 2002/35 Lurralde Antolamendu Foru Legearen 79. artikulua jarraituz, bildutakoek aho batez ondoko erabakia hartzen dute:

-Behin behineko onespina ematea Aizarotzko 5 eta 29. lursailen erabilera aldatzen duen udal planaren egiturazko aldaketari, lursail publiko izaera aldatuz, aipatutako lursailak ibaiaren espazioarekin lotuz. Erabilera berria guneko publiko dotazionala izanen du.

-Akordio hau Nafar Gobernura bidaltzea behin betiko onespina eman dezaioten 35/2002 Lurralde Antolamendu Foru LEgearen 79. Artikulua jarraituz.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez goizeko 9:00ak direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.